

ALDALUR ARABA, S.L., Kide bakarra

**2009KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIAREN
MEMORIA LABURTUA**

(1) Sozietatearen jarduera

Sozietatea 2009ko apirilaren 7an eratu zen, eta Vitoria-Gasteizen dago (Probintzia plaza, zk.g.), Arabako Foru Aldundiaren Jauregian. Sozietatearen helburu soziala, estatutuen 21. artikulua arabera, honakoa da:

- a) Landa edo hiri lurak erostea eta saltzea, errentan ematea edo lagatzea; hain zuzen ere, nekazaritza eta arrantza ustiapen berriak edo haiekin zerikusia duten industriak (bereziki, nekazaritza eta arrantza sektoreko bezero eta hornitzaileak) jartzea edo garatzea errazteko nahiz herri intereseko azpiegitura jartzeak sortutako kalteak arintzeko.
- b) Beste batzuekin batera landu ahal izango diren era askotako ustiapenak sustatu eta kudeatzea, nekazaritza eta arrantza ustiapen horien lana errazte aldera. Horretarako, instalazio logistikoen erabilera erraztu eta bultzatuko du eta energiaren sorrera, hornigai biltegiak, administrazio bulegoak, eta abar sustatuko ditu.

2009ko abenduaren 31n, sozietateak ez dio bere jarduerari ekin.

Sozietatearen partaidea Arabako Foru Aldundia baino ez da; aldundia Vitoria-Gasteizen dago (Araba).

Sozietateak ez du zertan 2009ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaren urteko kontu laburtuak ikuskatu.

(2) Urteko kontuen aurkezpenaren oinarriak.

a) Irudi zehatza-

2009ko abenduaren 31n amaitu den ekitaldiko urteko kontu laburtuak (erantsitakoak) sozietatearen kontabilitate erregistroetatik atera dira, eta Kontabilitate Plan Orokorra onartu duen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorraren eta kontabilitate arloan nahitaezkoak diren lege xedapenen arabera aurkeztu dira. Horrela, sozietateak ekitaldi horretan izan dituen ondare, finantza egoera eta eragiketen gaineko emaitzen eta dagokion ekitaldian ondare garbian gertatutako aldaketen irudi zehatza ematen da, alderdi garrantzitsu guztietan.

Bazkideen Batzar Orokorrak, oraindik, 2009ko ekitaldiari dagozkion urteko kontu laburtuak onartu ez baditu ere, sozietatearen administratzaileek ez dute uste, onespeneren ondorioz, horietan aldaketa garrantzitsuak gertatuko direnik.

b) Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena-

Urteko kontu laburtu hauek egitean, memoriako 4. oharrean laburtzen diren kontabilitate printzipioak eta arauak aplikatu dira. Ondarean, finantza egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu laburtu hauek egiteko.

c) Informazioa erkatzea-

2009ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko sozietatearen urteko kontu laburtuak Kontabilitate Plan Orokorra onartu duen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak jasotakoaren arabera egindako lehenengoak izan dira, bai eta azaldutako lehenengoak ere; izan ere, 2009ko ekitaldia sozietatearen lehen ekitaldia izan da.

d) Informazioaren erantzukizuna eta egindako zenbatespenak-

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez egin ditu sozietateak bere finantza egoerak; izan ere, ez da eman hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

Erantsitako urteko kontu laburtuetan, batzuetan, Sozietatearen Zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili izan dira, bertan erregistratuta dauden aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kuantifikatzeko. Funtsean, honakoak dira zenbatespenak:

- Etorkizuneko ordainketen konpromisoak zehazteko egindako zenbatespenak.

Baliteke, nahiz eta zenbatespen horiek aztertutako gertakarien gainean urteko kontu horiek egiteko unean zegoen informaziorik onena oinarri hartuta egin ziren, etorkizunean, hurrengo ekitaldi batzuetan aldatzera behartzen duten (gorantz edo beherantz) gertakariak egotea, eta hori modu prospektiboan egingo litzateke, zenbatespen aldaketaren ondorioak aitortuz etorkizuneko galera-irabazien kontuetan.

(3) Emaitzen banaketa

Administratzaileek Bazkideen Batzar Orokorrari proposatuko dioten 2009ko emaitzaren banaketa onartzeko proposamena honakoa da:

	Euroak
Ekitaldiaren emaitza, erantsitako galera-irabazien kontuaren arabera	107
	=====
Honela bana daiteke:	
Legezko erreserba	11
Borondatezko erreserbak	96

	107
	=====

(4) Erregistro eta balorazio arauak

Sozietateak, 2009ko abenduaren 31n, urteko kontu laburtuak egiteko erabilitako balorazio arau nagusiak, indarrean dagoen legeriaren arabera, honakoak izan dira:

a) Finantza tresnak-

Finantza aktiboak

Finantza aktiboak egoera balantzean kontuan hartzen dira, eskuratzen direnean, eta hasieran arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira, oro har, eragiketaren kostuak barne.

b) Ondare garbia eta finantza pasiboak

Berezko ondare tresnak funts propioen barruan sartzen diren finantza tresna guztiak dira.

Erregistro arauaren eta indarrean dagoen Kontabilitate Plan Orokorraren 9.4 zenbakiko balorazioaren arabera, Sozietatea eratzearen ondoriozko gastuak eta, zehatzago esateko, kapital soziala harpidetu eta ordaintzearen ondoriozkoak zuzenean erregistratu dira Ondare Garbiaren aurka, erreserba txikiago gisa.

Finantza pasiboak, hasiera batean, transakzioan gertatutako kostuak kendu ondoren garbi jasotako efektiboarekin erregistratzen dira. Hurrengo ekitaldietan, kostu amortizatuaren arabera baloratuko dira; horretarako, interes tasa efektiboa erabiliko da.

c) Mozkinen gaineko zerga-

Sozietateen gaineko zerga, 2009ko ekitaldirako, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Arauaren arabera likidatu da.

Zerga arruntagatiko gastua zerga arruntagatiko eta zerga geroratuagatiko gastua batuta zehazten da. Zerga arruntagatiko gastua zehazteko, indarrean dagoen karga tasa aplikatzen zaio zerga mozkinari eta hobari eta kenkari orokorren zenbatekoan lortutako eta ekitaldian aplikatutako emaitza murrizten da.

Zerga geroratuen ondoriozko aktibo eta pasiboek etorkizunean ordaintzeko edo berreskuratzeke aurreikusitako zenbateko gisa zehaztutako denbora diferentziak dituzte jatorrian, hala badagokio; horiek aktibo eta pasiboen liburu balioaren eta oinarri fiskalaren arteko diferentziaren ondoriozkoak dira. Zenbateko horiek erregistratzeko, denbora diferentziari berreskuratzea edo likidatzea espero den karga tasa aplikatzen zaio.

Bestalde, zerga geroratuen ondoriozko aktiboak (denbora diferentzia kengarriekin identifikatutakoak) soilik onartuko dira Sozietateak etorkizunean horiek erabiltzeko adina zerga irabazi izango duela uste bada eta aktiboen eta pasiboen hasierako aitorpenetik eratorritakoak ez badira (negozio konbinazioetan izan ezik) zerga emaitzan eta kontabilitateko emaitzan eraginik ez duen eragiketa batean. Geroratutako zergen ondoriozko gainerako aktiboak (zerga oinarri negatiboak eta oraindik konpentsatu gabeko kenkariak) onartuko dira, baldin eta Sozietateak, etorkizunean, horiek erabiltzeko adina zerga irabazi izango duela uste bada. Balorazio zuhurtziaren arabera, zergaren kuotan hobari eta kenkariak aplikatu edo konpentsatzen diren ekitaldiari dagokion zergagatiko gastuaren murrizpentzat hartzen dira.

Kontabilitateko itxiera bakoitzean, erregistratuta dauden zerga geroratuak berrikusten dira (aktiboak zein pasiboak), indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko. Horrelakoetan, egindako azterketen emaitzen arabera beharrezkoak diren zuzenketak egiten zaizkie.

d) Sarrerak eta gastuak-

Sarrerak eta gastuak sortzapean irizpidearen arabera egozten dira, hortik eratoritzen den moneta edo finantza korrontea jotzen den unea aintzat hartu gabe.

Hala ere, ekitaldia itxiko den datan egindako mozkinak bakarrik zenbatuko ditu sozietateak, eta aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, behin-behinekoak barne, ezagutu bezain laster kontabilizatuko dira.

e) Ingurumen izaera duten ondare elementuak-

Sozietatearen jardueraren ohiko garapenak ingurumenean ekar ditzakeen eraginak ezabatu, mugatu edo kontrolatzea helburu duten sistema, ekipo eta instalazioak eskuratzeagatiko kostuak ibilgetuko inbertsioztzat hartzen dira.

Ingurumenarekin lotutako gainerako gastuak, aurrekoak ez bezalakoak, ekitaldiko gastutzat jotzen dira. Ingurumen arloan egon daitezkeen hornidurak kalkulatzeko, horien berri izan den unean egindako sortzapearen zenbatespenik onena hartzen da kontuan, aseguru polizek eragindako kalteak estaltzen ez badituzte.

Administratzaileek egiaztatzen dute Sozietateak ez duela ondarearekin, finantza egoerarekin eta horien emaitzekin lotuta garrantzitsua izan daitekeen ingurumen arloko erantzukizun, gastu, aktibo, hornidura eta arriskurik.

f) Lotura duten alderdien arteko transakzioetan erabilitako irizpideak

Horrelakorik egonez gero, talde bereko enpresen arteko eragiketak, lotura maila gorabehera, arau orokorren arabera kontabilizatzen dira. Egindako transakzioen helburu diren elementuak hasieran kontabilizatuko dira, arrazoizko balioaren arabera. Geroko balorazioa dagozkion kontuetarako arau berezietan ezarritakoaren arabera egiten da.

Taldeko enpresatzat hartzen da Arabako Foru Aldundia, Sozietatearen akzioduna. (5 (a) oharra).

(5) Funts propioak

Egoera balantzearen ondare garbiaren gaineko epigrafe honen xehetasuna, 2009ko abenduaren 31n, honakoa da:

	Euroak
Kapital soziala	18.000
Beste erreserba batzuk	(699)
Ekitaldiko emaitza	107
	17.408

Harpidetutako kapitala-

2009ko abenduaren 31n, kapital soziala 18.000 partaidetza sozialek osatzen dute; bakoitzak 1 euroko balio nominala du, erabat harpidetuta eta ordainduta.

2009ko abenduaren 31n, akziodunen eraketa Arabako Foru Aldundiari dagokio, osorik.

Legezko erreserba-

Sozietate Anonimoei buruzko Legearen testu bateratuak jasotakoari jarraiki, ekitaldiko mozkinaren % 10en pareko zifra eman behar da legezko erreserbarako, harik eta horrek, gutxienez, kapital sozialaren % 20 lortu arte.

Legezko erreserba kapitala gehitzeko erabil daiteke, dagoeneko gehitutako kapitalaren % 10etik gorako saldoaren zatian.

Aurretik aipatutako helbururako ez bada, eta kapital sozialaren % 20 gainditzen ez badu, erreserba hau galeren konpentsaziorako baino ez da erabiliko, baldin eta xede horretarako moduko adina erreserbarik ez dagoenean.

(6) Zerga egoera

Kontabilitateko emaitzaren eta sozietateen gaineko zergaren zerga oinarriaren arteko kontziliazioa, 2009. urtean, honakoa da:

Ekitaldiko sarrera eta gastuen saldoa	107			(699)		
	Handitzeak	Gutxitzeak	Eragin garbia	Handitzeak	Gutxitzeak	Eragin garbia
Sozietateen gaineko zerga	41		41		(272)	-272
Diferentzia iraunkorrak						
Denbora diferentziak						
_ jatorria ekitaldian						
_ jatorria aurreko ekitaldian						
Aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboen konpentsazioa						
Zerga oinarria (emaitza fiskala)		148			-971	
Zerga oinarria, guztira			-823			
Zerga tasa			0			
Kuota osoa			0			
Kenkariak						
Kuota likidoa			0			
Kuota likidoa, guztira			0			
Atxikipenak			-27			
Itzuli beharreko kuota			-27			

Sozietateak erantsitako balantzean eraketa gastuen ondorioz sortutako zerga oinarri negatiboen zerga geroratuaren arabera aktiboa erregistratu du, eta horren zenbateko garbia borondatezko erreserbei egotzi zaie. Zerga geroratuaren zenbatekoa, 2009ko abenduaren 31n, 231 eurokoa da, % 28ko zerga tasa aplikatzearen ondorioz, zerga oinarri osoan, eta hurrengo ekitaldietan konpentsa daiteke, denbora mugarik gabe.

2009ko abenduaren 31n, ez dago aplikatu gabeko bestelako zerga pizgarririk.

Sozietateak irekita du zerga agintarien ikuskapenerako 2009ko ekitaldia, bere jarduerari aplikagarri zaizkion zerga guztietarako. Sozietateko

administratzaileen iritziz, ez da espero etorkizuneko ikuskaritzen ondoriozko zerga pasiborik, eta, horrenbestez, erantsitako urteko kontuek ez dute kontzeptu horregatik hornidurarik jasotzen.

Foru Ogasunarekiko saldo zordunen eraketa, 2009ko abenduaren 31n, honakoa da:

	Euroak
Ogasun Publikoa, BEZagatiko zorra	141
Ogasun Publikoa, zerga itzulketagatiko zorra	27

GUZTIRA	148
	=====

(7) Eragiketak, lotura duten alderdiekin

a) Akziodunarekiko eragiketak-

2009ko ekitaldian, Sozietateak ez du bere akziodunarekin transakziorik egin (5 (a) oharra).

2009ko abenduaren 31n, bere akziodunarekin, ez dago ordaindu gabeko saldorik, aktiboak zein pasiboak izan.

(8) Ingurumenaren gaineo informazioa

Ez dago dagozkion aurreikuspenen bidez babestu beharreko ingurumenaren arloko arrisku edo kosterik.

Era berean, ez dago ingurumenaren babesarekin eta hobekuntzarekin lotutako gertakizunik irekita, eta, bestalde, ez dago ingurumenaren arloko etorkizuneko inbertsioetarako konpromisorik, ez eta ingurumenarekin lotutako erantzukizunik eta oraindik jaso gabeko konpentsaziorik ere.

Sozietateak ez du ingurumenaren arloko dirulaguntzarik jaso, ez eta ingurumenarekin lotutako jardueren ondoriozko sarrerarik ere.

(9) Administrazio Kontseiluaren gaineko informazioa

Sozietatearen administratzailea izateak ez dakar inolako ordainsaririk; horrenbestez, ez da kontzeptu horregatik inolako gasturik erregistratu.

Beste alde batetik, ez zaie Sozietateko Administrazio Kontseiluko kideei aurrerakinik egin, eta ez zaie krediturik eman, ez eta bestelako abantailarik ere.

Sozietatearen Goi Zuzendaritza Administrazio Organoarekin bat dator.

Sozietatearen Administrazio Kontseilua, 2009ko abenduaren 31n, 4 gizonek eta 2 emakumek osatzen dute.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kideek inoren kontura egiten dute Aldalur Araba, S.L. kide bakarreko sozietatearen helburu den jarduera mota bera, antzekoa edo osagarria.

Kontseilukidea	Jarduerak egiten dituen erakundearen izena	Karguak edo eginkizunak
Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz and.	ARABA URAREN AGENTZIA SA	Kontseilukidea
	NATURGOLF, SA	Kontseilukidea
	IKT NEKAZAL IKERKETA ETA TEKNOLOGIA, S.A.	Kontseilukidea
Eduardo Aguinaco López de Suso jn.	.	Kontseilukidea
	ARABA URAREN AGENTZIA SA	Kontseilukidea
	NATURGOLF, SA	Kontseilukidea
	IKT NEKAZAL IKERKETA ETA TEKNOLOGIA, S.A.	Kontseilukidea
Eduardo Bringas González jn.	ARABA URAREN AGENTZIA SA	Kontseilukidea
	ARABAKO LANAK	Kontseilukid ea
	ARABAKO KALKULU GUNEA	Kontseilukid ea
	HAZIBIDE S.A.	Kontseilukid ea
	NATURGOLF, SA	Kontseilukid ea
Izaskun Martínez de Lahidalga and.	ARABAKO KALKULU GUNEA	Kontseilukid ea
	ARABARRI S.A.	Kontseilukid ea
Andoni Erkiaga Agirre jn.	ALDALUR ARABA S.L.	Kontseilukid ea
Juan José Yarritu Ruiz de Gordejuela jn.	ARABA URAREN AGENTZIA SA	Kontseilukid ea
	ARABAKO LANAK	Kontseilukid ea
	NATURGOLF, SA	Kontseilukid ea
	ARABAKO KALKULU GUNEA	Kontseilukid ea

(10) Auditorearen ordainsaria

Sozietateko auditoreen ordainsaria 1.000 eurokoa izan da ekitaldian. Ordainsari horiek Arabako Foru Aldundiak ordainduko ditu.

Memoria honek 10 orrialde ditu, eta Administrazio Kontseiluak egin du, 2010eko martxoaren 26ko bileran.

Administrazio Kontseilua:

<hr/> <p>Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz and. Presidentea</p>	<hr/> <p>Eduardo Aguinaco López de Suso jn. Bokala</p>
<hr/> <p>Eduardo Bringas González jn. Bokala</p>	<hr/> <p>Izaskun Martínez de Lahidalga and. Bokala</p>
<hr/> <p>Juan José Yarritu Ruiz de Gordejuela jn. Bokala</p>	<hr/> <p>Andoni Erkiaga Aguirre jn. Bokala</p>
<hr/>	<hr/>